**Joseba Macias**

Kazetaria

# Paraguai

■ Duela hilabete gutxi batzuk, Juan Carlos Wasmosyk, Paraguaiko lehendakariak, hiru militar atxilotzea erabaki zuen, Armadako komandante burua, Lino Oviedo, kritikatu zutelako. Hamarkadetan zehar *kultura* militarrean hezitako herri hartan gestio politikoa sableen erritmoan mugitu da luzaroan, eta historia luze horretako azkenaurreko atala izan da aurrekoa. Orain, Oviedo jeneral bera arduratu da gauza bakoitza bere tokian jartzeaz.

Latinoamerikako hegoaldeko herri hermetikoena den hartan oraindik ere luzatzen da Alfredo Stroessner-en betiereko itzala, diktadura era formalean erori zenetik zazpi urte iragan badira ere. 40 urtean izan den lehendabiziko gobernu zibilaren egonkortasuna (bide batez esanda, diktadura garaian militarrei legitimitate instituzionala eman zien alderdi bera —Alderdi Koloratua— dago agintean) ez da batere eredugarria izan iraganarekin egindako haustura gisa. Armadak bizitza instituzionalaren kontrolean zeukan benetako pisuari buruzko susmoa agerian utzi du militarrek egunotan egindako matxinadak. Hau da: gobernuburuak kargutik kendu zuen Armadako burua, bere alderdiko goi-kargu ugari argi eta garbi erabakiaren kontra zeudela. Militarra Zaldieriako egoitza batean itxi zen, eta matxinatzeko mehatxua egin zuen ez bazuten Defentsa ministro aukeratzen. Juan Carlos Wasmosy onartu egin zuen inposaketa. Handik ordu gutxitara, jarrera aldatu egin zuen, *herri borondatea* argudiatuta. Bitartean, lehendakariak Estatu Batuek Asuncionen duten enbaxadorearekin egindako bilera luzea gertatu zen, eta horrekin batera Estatu Batuetako Estatu Departamentuak *prozesu demokratikoari* emandako behin-betiko abala. Kapitulua amaituta. Lurralde haietako politika ekonomiko berriek demokrazia presidentzialista duten gobernu formalak behar dituzte. Hala ere, Indar Armatuetako —argitasuna inondik ere ezaugarri ez duen instituzioa— sektore zabalak ez daude prest Hego Amerikako diktadura militar guztiak erori ondoren gizartean egokitu zaien eginkizun berria betetzeko.

> Stroessner diktadoreak lortu egin zuen hiru hamarkadatan bere herria Brasilgo eta Estatu Batuetako kapitalak kontrolatutako kontzentrazio eremu berezia izatea, oligarkia anglo-argentinarren kaltetan

Stroessner diktadoreak lortu egin zuen hiru hamarkadatan bere herria Brasilgo eta Estatu Batuetako kapitalak kontrolatutako kontzentrazio eremu berezia izatea, oligarkia anglo-argentinarren kaltetan. Stroessnerrek, adibidez, ez zuen zalantzarik batere izan 1965 urtean Paraguaiko soldaduak bidaltzeko Estatu Batuetako tropei laguntzera Santo Domingoko inbasioan. Egun, forma politikoak bestelakoak dira, baina kontrol sozio-ekonomikoa betiko bera da. Hala ere, militar batzuek nostalgiaz gogoratzen dituzte iragandako garaiak. Horregatik, ona litzateke Paraguaiko agintari berriek *ama aberrian* izandako trantsizioa jarraibide argigarri gisa hartzea. Oraingoz, ongi ari dira: etengabeko korrupzio kasuak (esanguratsuenak Ogasun eta Barne sailetako ministroek egindako milioi askotako iruzurrak), botere politikoari lotutako gizarte esparru berrien berehalako aberastea... Agian, Armada *berriro aurkitzea* eta horretako kideen taloitegiak aberastea falta zaie. Ziur Olivo jeneralak irekitzen duela bidea.

Duela bostehun urte, jesuitek guarani indio *erreboltariak* erakarri eta seduzitu egin zituzten musika erabiliz. Ia bost mende geroago, beste musika batek, militarrak, jarraitzen du paraguaitarren pausoak markatzen. Kronikak, hala ere, demokrazia presidentzialista berri batez mintzatzen ari zaizkigu. ■

Erredakzioan itzulia

L A P*h* I T Z A




**Anjel Lobera**



## Beti bat

Hamahiru urteko nesken talde batek adin bereko neska bat hil du ostikoz. Biharamunean, irratietan, betiko leloa entzun genuen: batzuen ustez, umeak euren egiteen jabe ziren; besteen aburuz, ostera, ez.

Txarra da umea hiltzea, baina ez ote da txarragoa horretara eraman gaituen heziketa? Ez dut aitzakiarik topatu nahi. Zoritxarrez, geroago eta usuago entzuten ditugu horrelako akiakulak: gizartea ez dakit zelangoa den; gurasoen haziera ez ei zen onena... Eta umeak zer? Ez ote zekiten zertan zebiltzan?

Inoren erruak aurkitu nahian gabiltzala, geure baitara bildu beharko genuke, eta geure umeei ematen diegun mezua aztertu. Horrela, trixtea da Bizkaiko ume batzuk Gipuzkoara joaten direnean, bertoko umeek eskuekin zinu egitea, baita alderantziz ere. Trixtea da inorenganako gorrotoa zabaltzea, batez ere, gauza ez bagara ondoreak zaintzeko. Baina, ez dio! Estakuruak non-nahi aurki ditzakegu, gure kasa ez bada, inoren bitartez. Beti leporatuko diogu inori jazotzen denaren errua!

Ez ote dugu abagunea Euskal Herriko Unibertsitatean gertatzen ari dena behingoz konpontzeko? Ezin ote dute elkarren aurrera jarri alderdi biek, arazoa behin-betiko argitzeko? Gogo nuke hori bideratzea: batzuek bezala besteek zerbait uzten badute horretan, ez dira, horratio, gutxiago izango!

**Iñaki Segurola**



## 'Puta'

Orain-hurrengo batean, ari ginela, ari ginela... hor non botatzen didan besteak: «ni puta nauk»; eta zergatik, eta edozeinekin asko, ondo, luze eta gozo jotzea omen delako bere kutixia. Esan nion: gauza bat dela *puta*, eta beste bat dela, guk esaten dugun bezala, *zalea*. Putak ez du bere gogoz larrurik jotzen (zerbitzu bat da: hartuak emana zor), baina zaleak bai, eta gau-egunen ordu guztiak jo-ta-sutan blai eginda pasako balitu ere, ezin deituko diogu sekula *puta*, zerèn puta den bakar-bakarrik dirutan saltzen dena (eta ezkon-puta —komeni da gehitzea— ezkon-betebeharra edo zerbitzua zor duena: kontratu edo ezkon-tratu baten mende daude biak ere). Zaleari *puta* esatea eta hala dela sinestaraztea emakumeen kontrako tranpa zikina da eta izenik ez duen krimena. Eta gainera, zein da gizaputanga garestienek (*standing* goreneko puta-ar exekutibo saldu-errexek) kudeatutako gizarte hau, eme alai larrujole amultsu bati *puta* esateko? Zein, kreditua edo sinestea irabazteagatik bere burua Bankuari saltzen, eta, kirolari sunormalen gisan, «ni profesional bat naiz» esaten ikasitako giza-galduen mundu erabat prostifikatu hau? Esaldi horrek, bistan da, «ni puta bat naiz» esan nahi du zintzo itzulirik: puta, eta ez zale eta ez *amateur* amorezko... eta honekin lehengora bihurtzen zait gogoa; ari ginela, ari ginela...